

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

Galtzaundi



ESKUALDEA: Tolosaldeko inmigrazioa planaren barruan ekimen ugari
KULTURA: Tolosako bertso eskola
 berriro martxan » **GIZAKIARI BEGIRA:** Masaiaren dimentsio psikologikoak: kontaktua
KIROL SALTSA: Tolosaldeko futbol taldeak denboraldi berriari begira

ESKUALDEA: Eneko Lasa alegiarra munduko bigarren arrantzalerik onena



Gaurko eta biharko oinarria





berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: P° San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK





1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



www.multioplicasgipuzkoa.com

Eskaintza honen balioa 08/09/01etik 08/10/31ra artekoa da. Beslay 1.5 lente organiko gogortuak; zilindroa, +2; esfera, +2tik -4ra. Eskaintzaren balioa betaurreko bietan graduazio berdina izatekotan da, eta ezin da metatu beste promozioetara.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRENTERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Erp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	--	--	--	---

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.



aldama_tapia
 aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
 20400_TOLOSA Gipuzkoa
 Tel_943 650 375
 Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

NUTRIZIO AHOALKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA
 BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Dihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxera, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz



Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundieren laguntza
jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kubxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Joxe Agustin Arrieta:
Pixka bat es mucho
- Kepa Erdozia:
Piomano bat sutan

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- Lan mundua
euskalduntzeko
hitzarmena



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Eneko Lasa
arrantzaleari
elkarrizketa
- Inmigrazio plana
gauzatzeko bidean
pauso berriak

10-12 orrialdeak

Galtzaundi 287

2008ko urriaren 3a


Iritziaren Leihoa: Joxe Agustin Arrieta eta Kepa Erdozia.....	4-5
Eskualdeko albistek:	
Eneko Lasa arrantzaleari elkarrizketa	10-11
Inmigrazio planaren baitan ekimen ugari.....	12
Gizakiari begira: Masaiaren dimentsio psikologikoak	13
Kultura: Tolosako bertso eskola berriro martxan	14-15
Kirol Saltsa: Tolosaldeko futbol taldeekin solasean	17-19

ERREPORTAIA

Gazte Alaiak Irurako Ikastolaren sortzaileak



7-9 orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Ez nuen horrelako denboraldia egiterik espero. Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratzea jada nahikoa izan zen niretzat. Gero zer eta datorren urteko Munduko Txapelketa-rako txartela lortu nuen. Hala ere, gutxien espero nuena aurtengo Munduko Txapelketan bigarren egitea zen”

- ENEKO LASA
ARRANTZALEA

10-11. orrialdea

MOTORRAREN GEHIGARRIA

- Lur orotako autoak.
- 1Formula kontzesio-narioan.
- Tomas Aierza:
bitzita bat motor artean.
- Motorreko gida baimena ateratzeko araudi berria abian.
- GPSak, mapak baino gehiago



“PIXKA BAT ES MUCHO”

JOXE AGUSTIN ARRIETA

Irakaslea

Abesti hau eta euskaren aldeko kanpainaren oihartzuna harturik, euskarari buruzko gogoeta bat –beste askoren artean– zuzendu nahi nuke.

Beti sentitu izan dut euskararik gabe ez dagoela Euskal Herriak. Beharrezkoa dugula euskara ikastea eta euskaraz bizitzeta. Bidea hemendik egin behar dugula. Euskara ikasi eta erabili, eta dauden aukerekin geure seme-alabekin honetan ahalegindu.

Baina, hau ez dago euskaldunon borondate irmorik gabe lortzerik. Eskoziarrek eta irlandesek azkenetan dute beren hizkuntza. Irlandarrek estatu bat dute eta estatu izanaz galdu dute. Hain zuzen independentzia dute, eta beren “gaeliko” hizkuntza ez dute guztiz normalizatu. Badago hemen gaitz bat, heritarren borondate sendoa hizkuntza erabiltzeko ahuldu egiten denean, orduan krakatekoa etortzen da.

Nola ez gogoratu Artzen po-

ema-esaldi hura, ezta? Badakit hau ez dela guztia. Hor ditugu euskalduntzea ahuldu nahian eta euskara gutxiesten eta galdutzat jotzen duten hainbat politikari, katedradun eta pertsonaia publikoak.

Euskal Herria euskalduntzea belaunaldietako lana da. Eta bakoitzak geure euskal baratzan gure aletxo eta ahalegina egin beharko dugu. Hala gabilta. Nik uste, azken urte hauetan, eskolaratu dela euskara, nahizta sendotzea behar duen oraindik. Gainera, beste kontua eta enbido latza hauxe da; euskara lan eta gizarte hizkuntza egitea. Erronka hemendik dugu.

Egia da poliki eta dortoka eran ezin dela ibili, baina azkarregi joanez, euskararekiko atxikimendua kolpatu eta gutxiagotu daiteke. Euskaltzaleon ametsa garbi da: Euskal Herria euskalduna lortzea eta bestalde hizkuntza askotarikoa, eleanitzeta...nonahi, noiznahi eta nor-nahirekin euskaraz egiteko gai izan guztiok. Eta hemen alderdi

eta indar guztien elkartasuna beharrezkoa da.

Euskararen Normalkuntzarako plangintzak hor daude. EGINEAN eginez jarraitu beharko dugu. Errealismoz eta borondate onez. Administrazioa euskalduntzen lan handiak egin eta egiten dira, nahiz-ta oraindik nahiko ez izan. Aurrera jarraitu beharko dugu, baina euskararen etsaiago inor bihurtu gabe. Ausardia eta zuhurtzia, beharrezkoa baititugu.

Bat egiten dut Hizkuntza Politikarako Sailburuorde den Bastarrikaren hitzekin: “Gaur, European eta munduan, elebakartsuna ez baita araua, salbuespena baizik. Araua eleanitzasuna baita, hizkuntza guztiengana errespetua eta sustapena. Elebakartsuna ez da eskubide bat, muga bat baizik: desberdintasuna eragiten baitu. Uniformitateak pobretu egiten du, baita hizkuntzen kontuan ere. Gaztelaren ustezko defentsa asko, azken batean, elebakartsunaren eta uniformitatearen defen-

“enbido latza hauxe da; euskara lan eta gizarte hizkuntza egitea. Erronka hemendik dugu”

tsa dira benetan. Baina gaztelek ez du jagolerik behar. Eta euskarak ere ez ditu behar, ezta salbatzaileak ere. Euskarak hiztunak behar ditu, gauzarik normalena bezalaxe euskara erabiltzen duten hiztunak”.

Garrantzitsua izango da –eta honela uste dut– Atlantiko aldeko ardatza eta azpiegitura sendotzea. Beharrezkoak izango dira autobideak, trenbide berriak, kaia berriak, industriagune berriak...baina herrialde aberatsa eta aurreratua izatea ez da nahiko, ez da aski, herri euskalduna bilakatzeko. Horrekin batera behar ditugu bezain garrantzitsuak zaizkigun eskola eta unibertsitate euskaldunagoa, komunikabide euskaldunak, administrazio euskaldun praktikoagoa...Norbaitek esana da aspaldi batean: “Zertarako dugu mundu osoa irabaztea geure arima galtzen badugu”...

RICHARD

A R G A Z K I L A R I A K

nafarroa etorbidea, 4 - 20400 tolosa (gipuzkoa) tfnoa. 943 652 600
e-mail: fotorichard@fotorichard.com

IRASTORZA GARRAIOAK



Iruña etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxa: 943 671 865

ZETA^s_i

MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916



kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643



PIROMANO BAT SUTAN

KEPA ERDOZIA

Piromanoa

Piztu da sua! Irailak 12-13 egunetan Bonberenean egon ginenean ikusi genuen bonberoak sua pizteko prest zeudela. Bukatu dira esamesak, bukatu dira kontuak, piromanoen garaia iritsi da. Bonberoak ez dira kikilduko. Beraiekin dagoen jendea ez da kikilduko.

Bonberenea Sutan jarri zuen jaialdiak erakutsi zuen bonbereanaren atzean jendetza ikaragarria zegoela. Jende askoren grinak sortu zuten Bonberenea Sutan jaialdia. Konta ezina da Bonberenean laguntzeko eskaini zen jendea. Tolosako herriko hainbat kolektibok parte hartu zuen jaialdian, jende ugari erakutsi zuen parte hartzeko gogoia. Hori eskertzerik ez dago. Jendeak miresten du Bonberenea, jendeak sinesten du Bonberenean.

Bonbereneak betiko bidea eskaintzen du. Erreala, egitazkoa, birtuala ere, zergatik



ez! Bonbereneak jendearen inplikazioa zuzena eskatzen du, behar du. Baina modu berean, ametsezko proiektu erreala batean murgiltzen diren laguntza behar du. Eta eskertzen du. Eta jaso du. Horrek ematen du bizipoza. Bonberenea Sutan hasten denean Euskal Herriko hainbat talde dago prest beraien zuziria aldamenen jarri eta sua pizteko. Piztu da Bonberenea! Piztu da piztia! Piztu da

Euskal Herria! Ez dago atzera biderik!

Bonberenea Sutan-en elkartu ziren taldeak Euskal Herriko bikainetakoak ziren. Nahi zutelako etorri ziren. Sinesten zutelako etorri ziren. Hori ez dago eskertzerik. Hala ere, taldeez aparte, jaialdia ahalbideratu zuten pertsona guztiek merezi dute benetako txaloa: musikarien ongi izateaz arduratu zirenek, tabernan lan egin zutenek, ogitartekoak banatu zi-

“ Ez dago atzerabiderik. Lehenengo suziria piztearekin batera bonberoko piromanoek ez dute sua itzaltzeko asmorik. Bonberoko piromanoak dirauten bitartean sormeraren sua ez da itzaliko Tolosan, ez da itzaliko Euskal Herrian! ”

tuztenek, Tolosako bidegurutzeetan zeudenek, euripean atea zaintzen aritu zirenek... Piztu da Bonberenea, piztu da piztia, piztu da Euskal Herria!

Ez dago atzerabiderik. Lehenengo suziria piztearekin batera bonberoko piromanoek ez dute sua itzaltzeko asmorik. Bonberoko piromanoak dirauten bitartean sormeraren sua ez da itzaliko Tolosan, ez da itzaliko Euskal Herrian! ■

Lagundu eraikitzen, lagundu jaiegun paregabea eraikitzen, lagundu Irurako ikastola berria eraikitzen, lagundu herria euskaraz eraikitzen.

urriaren 5ean Iruran gaituzu zure zain

...a, ez ahaztu, hobe trenez etortzen bazara!!!

www.kilometroak.net

Anoetako Udala, Irurako Udala eta Galtzaundi Euskara taldearen arteko hitzarmena

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA LAN MUNDUAN LANTZEAREN APUSTU BERRIA ABIAN JARRI DUTE

Erredakzio Batzordea

Galtzaundi Euskara Taldeak euskararen normalizazioa du bere izateko arrazoia eta helburua. Erabilerara esparruak landu behar badira, Tolosaldeako kasuan lan munduari eman behar zaion lehentasuna erabatekoa da. Arlo honetan egingo den garapenarengandik etor daitezke hizkuntza normalizatzeko etekinik garrantzitsuenak. Izan ere, enpresa, merkatartitza, ostalaritza eta jarduera ekonomikoan euskarak protagonismoa lortuko balu, normalizaziorako urrats ikaragarria ematea litzateke.

Lan ildo horretatik aurrera jarraitzea da guztion asmoa eta emaitza horiek hobetu asmoz Irurako eta Anoetako Udalek, Galtzaundirekin batera elkarlan bat izatea da helburua. Horretarako, enpresak bisitatuko ditu Galtzaundiko teknikari batek eta elkarteak bere prestutasun osoa izango

Irailaren 24ean, Irurako Udaletxean, Anoetako Udalak, Irurako Udalak eta Galtzaundik, euskararen normalizazioa lan munduan lantzeko hitzarmena sinatu zuten.



Periko Peñagarikano, Marimi Ugalde ta Ion Ander Ubeda hitzarmenaren sinaketa ekitaldian.

du, hauei jarraipena eman, itzulpen zerbitzua eskaini eta aholkularitza lana hartzeko.

Bisitatu beharreko enpresak udalekin batera identifikatu ondoren, enpresa bakoitzak, euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko berak aukeratutako konpromiso batzuk hartzeko aukera izango du, urte beteko epean betetzeko. Konpromiso txikiak izaten dira, betetzeko modukoak. Helburua ez da bat batean hizkuntza-egoera alda-

tzea, pixkanaka eman beharreko pausoak dira. Denbora eskatzen duen proiektua da. Konpromisoak hartzen dituzten gizarte eragileek “Bai Euskarari Ziuertagiria” eskuratzeko aukera izango dute.

Anoeta eta Irurako Udalek erronka hau hartzearen garrantzia azpimarratu zuten, baita enpresa gehienek, euskararen erabilerara areagotuko duten konpromisoak hartzearen garrantzia ere. Izan ere, bi herrietan enpresa asko daude eta kontu-

tan izanik enpresa sektorea oso erdalduna dela, pisu handia izango du hitzarmen honek euskararen normalizazioa lantzeko. Bi Udalek, ahalegin guztiak egingo dituzte enpresa hauei laguntzeko eta noski, berriekiko harremanak euskara hutsean bideratzeko, hala nahi badute behintzat. ■

BAI EUSKARARI ZOZKETA

Bai Euskarari Ziuertagiria duten Tolosaldeko saltoki, enpresa eta era guztietako entitateetan eskuratu daitezke Bai Euskarari zozketaren boletuak.

Sariak honako hauek dira:

- 1- Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landaturismoko etxe batean
- 2- Mahala Esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat
- 3- Aralar kirolak dendan, forro polar bat
- 4- Klisk argazki dendan, argazki sesio bat

Zozketa abenduaren 3an egingo da eta zenbaki saridunak Hitzan eta Galtzaundin argitaratuko dira. Zorte on!

antza



Mikel Izagirre, Josune Aiestaran, Jexux Angel Ugalde, Jabier Larrinaga eta Jabier Tapia Gazte Alaiak elkarteko kideak.

Gazte Alaiak, gaurko Iruraren oinarria jarri zutenak

HERRITARREN OMENALDIA JASO DUTE IKASTOLAKO SORTZAILEEK JAIE TAKO SUZIRIA PIZTUZ

Leire Zubeldia

70. hamarkadan Ikastola sortzeko bilerak egin ziren leku berean elkartu dira Galtzaundi eta Ikastolako sortzaileak: Gazte Alaiak elkartean zehazki. Jexux Angel Ugalde, Jabier Tapia, Jabier Larrinaga, Josune Aiestaran eta Mikel Izagirrek gustura oroitu dituzte Ikastolaren eta bazkide diren elkarrearen sorrerako urte haiek.

Gazte Alaiak 1976an sortu zen helburu jakin batekin: Ikastola martxan jartzeko helburuarekin hain zuzen. “Batetik, orduko gazteek ez genuen elkartzeko lekurik, herriko txoko eta taberna bazterretan biltzen ginen, eta

Oinarria eraikitzen kantuaren letrak dioen moduan, heldu da Irura helburura. Amestutako hura lortu da. Irura herri euskalduna da eta euskalduntze bide horretan oinarria izan den Ikastolak badu bere eraikina. Azkeneko harria jarri denean, lehenengo harria hura jarri zutenekin gogoratu dira irurarrak. Gazte Alaiak elkarteko kideak izan ziren Ikastola sortu zutenak, eta Kilometroak jaiaren bezperan, sortzaileei omenalditxo bat eskaini die herriak, San Migel jaietako suziria pizteko aukera emanaz. Galtzaundi beraiekin egon da.

bestetik, ikusten genuen Iruran euskara galtzen ari zela”, gogoratu dute. Euskararen galera belaunaldi oso baten kezka zen. Josune Aiestaran, egungo Ikastolako zuzendaria azaldu duen moduan, “Irura herri erdalduna zen. Inguruan paper fabrika ugari

eta hauek hornitzeko bestelako lantegi morderoa zegoen. Kanpotik jende asko etorri zen lantegi hauetan lan egiteko eta horietako asko Iruran jarri ziren bizitzen”. Jabier Tapiak kasu zehatz bat ekarri du gogora: “Bazen inguruan fundizio handi bat eta berta-

ko langile asko Iruran kokatu ziren. Denek hitz egiten zuten gaztelaniaz”. Etorकिनен zein bertakoen seme-alabak eskola nazionalera joaten ziren, erdaraz ikasten zuten. “Umeek ez zuten euskaraz ikasten eta euskara zekitenen artean, askok galdu egin zuten”, dio Mikel Izagirrek. Irurako plazan euskara entzun zedin lanean jarri ziren gazte alaiak, gazte euskaltzaleak. Ikastola sortzea zen helmuga.

IKASTOLA SORTZEN

26 urte inguru zituzten Ugalde, Tapia, Larrinaga eta Izagirrek Ikastola sortzeko lanean hasi zirenean. Hogei bat

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

laguneko lan taldea osatu zuten gutxi gorabehera. Horien artean, bereziki oroitu nahi izan dute Jexux Mari Sorondo zena. “Gure artetik txisparik handiena hark zuen. Oso pertsona komprometitu zen eta euskararen aldeko militante sutsua. Irurako Ikastolarentzat oso pertsona garrantzitsua izan da”. Ikastola sortzeko lehenengo egin-beharra dirua biltzea zen. Herriko festetan taberna jarritz hasi ziren zeregin horretan. Euren seme-alabek go-

“Batetik, orduko gazteek ez genuen elkartzeko lekurik, herriko txoko eta taberna bazterretan biltzen ginen, eta bestetik, ikusten genuen Iruran euskara galtzen ari zela”.

GAZTE ALAIAK

tolaren aldeko emanaldiak eskaintzera. Jendea erruz biltzen zen”. Irurako plaza jendez betetzen zen aldiro, Ikastola sortzeko zakua gi-

Ikastola apaizetxean jartzeko baimena. “Artzain Onaren eliza ondoko etxe handi batera sartu ginen eta hantxe zegoen Setien. Gure proiektua azaldu genion eta baimena eman zigun”. 1977ko udaberrian izan zen hori. Udaran, auzolanean lokala egokitu zuten eta irailan zabaldu zituen ateak, gaur arte, Irurako Ikastolak.

PEDAGOGIA BERRITZAILA ETA EUSKARAZ

Hamalau ikaslerekin abiatu zuten bere lehenengo kurtsua Irurako Ikastolak. Josune Aiestaran egungo zuzen-

ekar zitzaten? Josune Aiestaranek azaldu duenez, “gurasoen artean kezka handia zegoen. Ikastolan, ordura arte ez bezala dena euskaraz irakasten zen eta pedagogia berritzailea erabiltzen zen. Haurrei, lehenengo mailara arte ez zitzairen irakurtzen eta idazten irakasten. Gurasoak lasaitzeko bilera mordoa egiten zen”. Ikastola sortzeko lanean aritu ziren gazteak guraso ziren ordurako eta euren seme-alabak eta ilobak izan ziren Ikastolako lehenengo ikasleak. “Hasierako promozioetako ikasle guztiak euskaldunak ziren hiruzpalau kenduta. Azken hauek berehala euskaldundu ziren”, gogoratzen du Josunek. Lehenengo urteetan bera izan zen Ikastolako langile bakarra. “Gazte Alaiak-ekoek ondo zaintzen ninduten ordea”, dio. “Askotan joaten ginen, *zer moduz Josune?* galdetzeraz, berak ondo erantzuten zigun eta aurrera!”. Gainera, Irurako Ikastolak, Tolosako Laskorain Ikastola, Anoetako Ikastola eta Ibarra-ko Ikastolaren babesa zuen. “Irakasleak ia egunero biltzen ginen eskola ondoren”, azaldu du Josunek. Sorondo zena ere bailarako Ikastolen batzordean zegoen eta hark asko erraztu zituen lanak.

Haur Hezkuntza osoa batera ibiltzen ziren, ikasgela bakarra osatuz. “Errekroan plazara ateratzen ginen, Eskola Nazionalakoak begirabegira egoten ziren, martxa izaten baikeuen guk”, dio Aiestaranek. Iruran euskara gero eta gehiago entzuten zen. “Pixkanaka-pixkanaka, Ikastola atzerapausoa zela pentsatzen zutenak isiltzen joan ziren”.

APAIZETXETIK EGUNGO ERAIKINERA

1985. urtean apaizetxea goera txarrean zegoela eta,



Mikel Izagirre, Jabier Tapia eta Jexux Angel Ugalde jaietako suziria pizten.

gorarazten dieten anekdota bat kontatu dute. “Euskaldun peto-petoak ginen gu, baina idazten eta irakurtzen ez ginen batere abilak: Ikastolako tabernan, *Ikastola zortzen idazten genuen Ikastola sortzen jarri ordez*”. Kontakizunak algarak sortu ditu mahaietan. San Migeletan bakarrik ez, urteko edozein garai zen egokia dirua biltzeko. Gazte Alaiak elkartearen ekimenez, Irurako plaza jaialdi handien lekuko izan zen 70.hamarkadan. “Pantxoa eta Peio, Maite Iridin eta izen handiko artistak etorri izan dira Irurara Ikas-

zendu egiten zen.

Nahiko diru bildu zutenean lokal baten bila hasi ziren gazte alaiak. Orduko apaizetxea izan zen Irurako Ikastolaren lehenengo egoitza. Lokala uzteko eskatzeraz elizara jo zuten. “Irurako orduko apaizak gauzak zail jarri zizkigun. Ez zen euskararen aurkakoa, baina orduan gazteak ginen eta ez zen gutaz fidatzen. Oztopo dexente jarri zizkigun, baina azkenean, gotzaindegira bidali gintuen”. Orduan gotzainaren laguntzaile moduan zegoen Jose Maria Setieni aurrez-aurre eskatu zien Irurako

daria izan zuten haur hauek irakasle. Gazte alaien ametsa bete zen, baina zailena egiteko zegoen oraindik. Iruran Eskola Nazionala zegoen, eta bertara joaten ziren irurar gehienek seme-alabak. “Eskola Nazionalera joan ordez haurrak Ikastolara etor zitezten itxura ona eman behar genuen”, aipatu du Ugaldek, “gainera, ordura arteko eskola debalde zen eta Ikastolan kuota bat ordaindu behar zen hilabetero, langilearen soldata ordaindu beharra baitzegoen”, jarraitu du. Nola konbentzitu gurasoak euren seme-alabak Ikastolara



Irurako Ikastolako lehenengo ikasleak.

“Gurasoen artean kezka handia zegoen. Ikastolan, ordura arte ez bezala dena euskaraz irakasten zen eta pedagogia berritzailea erabiltzen zen”.

JOSUNE AIESTARAN

plazan dagoen egungo eraikinera igaro ziren. Bertan Eskola Nazionalak bi gela zituen, Ikastolak bakarria. “Gu ez geunden Eskola Nazionalari begira. Axola ziztaigun bakarria Ikastolak kalitatezko heziketa ematea zen”, esan dute. Haur Hezkuntza amaitzean, Irurako umeak Anoetako Ikastolara joaten ziren Lehenengo Hezkuntza egitera. Pixkanaka, Eskola Nazionala ikasle-

ak galtzen joan zen, 1987an ateak itxi zituen arte. Ikastolak garai onak bizi zituen, baina 90. hamarkadan kinka larrian egon zen. “Jaiotze tassa izugarri jaitsi zen eta umerik ez zegoela eta ixteko zorian ere egon zen Ikastola”. Inork ez zuen ordea Ikastola saltzeko eta are gutxiago hura sortzeko horrenbeste lan egin zuten gazte alaiak. “Garai latzak izan ziren, baina eutsi egin genion. Hori bai, borrokatuta”. Orduko hartan inork ez zuen espero Irurako Ikastolak egun dituen 163 ikasleak izango zituenik.

1981ean Ikastolek titularitasuna lortu zuten eta Eusko Jaurlaritzaren esku geratu ziren. Ekonomikoki egoera erosoago batera igaro zen Irurako Ikastola. “Udalak asko lagundu zigun eta kon-

tzertuak antolatzeari utzi egin genion”. Hala ere, hor ez zen eten Gazte Alaiak elkarteko kideen eta Irurako Ikastolaren arteko ziborhestea. “Garagardo azokan urtero egiten dute lan eta Gabonetan kantatzera ateratzen bagara, edo beste ekintzaren bat baldin bada, gure umeek badakite Gazte Alaiak-en amaituko dugula meriendatzen edo hamaiketako egiten”, dio Ikastolako zuzendariak. Irurako elkarteak beti ditu atak zabalik, eurek dioten bezala, “elkarte gastronomikoa baino zerbait gehiago baita Gazte Alaiak”. Herriko kulturegintzaren bultzatzailetzat jotzen dute euren burua.

Elkarrizketa Irurako San Migel festei hasiera eman dien suziria bota ondoren egin dute Galtzaundik eta

Ikastolako sortzaileek. Gустura agertu dira herriak egindako omenaldi honen gatik. “Eskerrak eman behar dizkiegu Festa Batzordeari, Udalari eta baita Ikastolari berari ere. Gehien goraipatzen gaituztenak Ikastolakoak dira”, esan dute Ugalde, Tapia, Larrinaga eta Izagirre. “Irurako Ikastolak ez dauka saltzeko Gazte Alaiak”, jarraitu du Aiestaranek. Amaitu aurretik, Ikastolako arduradunen balentria azpimarratu dute: “Horrelako eraikin bat egiteak suposatzen duen gastuei aurre egitea eta Kilo metroak jaia antolatzeko ez baita erronka makala”. Erronka handia da bai, baina ez Irurako Ikastolak gaintu beharko duen azkenena. Zuzendariak gogoraz du, Haur Hezkuntzako eraikina egin beharra dagoela etorkizun hurbilean. “Horretarako leku fisikoa gordeta dago jada”, iragarri du.

Irurako Ikastolak bete du bere helburua: “Gaurko Irurra herri euskalduna da. Ume guztiek dakite euskaraz, eta ez dakitenak, haur hezkuntza amaitzerako euskalduntzen dira”. Ugalde, Tapia, Larrinaga, Izagirre eta Ikastola sortzeko lan egin zuten gaitzereko gazte alaiak jarri zuten gaurko Iruraren oinarria. Urriaren 5ean berri, biharko herriaren oinarria eraikiko dute irurra eta eskualdeko euskaltzale guztiek. Zorionak denei! ■

**CDI**
Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalaketak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
IASASTI
XXI S.L.
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

MATELAKO
Mertzeria eta
konponketak
Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA

**R** **A**
K **U**
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ALEGIA >>> MUNDUKO BIGARRENA DA ENEKO LASA BAINA DATORREN URTEAN TXEKIAN JOKATUKO DEN MUNDUKO

Munduko bigarren amurik onena

Bost urte zituela hartu zuen Eneko Lasak (Alegia, 1994) arrantzarako kanabera. Martin Lasa, bere aita, eta Felix Rodriguez, bere lagunaren laguntzarekin, kirol honetan trebatzen joan da Eneko. 14 urterekin munduko txapeldunordea da bere mailan. Alegitarrek ondo merezitako omenaldia egin zioten irailaren 27an.

Erredakzioa

Kanabera eskuan hartuta, berdez jantzirik eta gainean tresna mordoa dituela azaldu da Eneko Lasa Galtzaundirekin zuen hitzordura. Alegiako presan elkartu dira. “Gehienetan hemen aritzen naiz arrantzan. Lehen kasik amuarrairik ez zegoen. Gero askatu egin zituzten eta orain dexente daude”. Ahal dela, egunero-egunero entrenatzen du Enekok. Hiru orduko saioak egiten ditu. “Udaran, egunero zortzi ordu sartzen aritu naiz, baina kurtsoan zehar ez dut horrenbeste denbora izaten. Eskola da printzipalena”, baieztatu du sendo.

BIDEA EGINEZ GOI MAILARA ARTE

Bost urte zituela hasi zen arrantzan Eneko. “Felix Rodriguez, aitaren lagunak animatu ninduen probatzera. Gustatu egin zitzaidan eta gaur arte”. Hasieran Felixen eta aitaren laguntza behar izaten zuen bera baino handiagoa zen kanabera manejatze-ko. “Aitak beti lagundu izan



Eneko Lasak Alegiako presa inguruan entrenatzen du egunero.

dit, baita orain ere. Beti izan dut ondoan”, azaldu du. Zazpi urterekin Tolosan jokatu zuen bere lehenengo txapelketa eta geroztik, txapelketaz txapelketa ibili da. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan hartu du parte azken bi urte hauetan. Aurten lehenengo aldiz, Portugalen jokatu den Munduko Txapelketan egon da.

Mailarik gorenera iristeko sekretua “arrantzan orduak sartzea” dela dio Enekok. “Praktikatzea da kontua. Amu ezberdinak probatu eta ondoren doakizuna lortu arte hau perfektionatzen joaten zara. Uretan zaudela zerorrek ere

ikusten duzu zeintzuk diren zure puntu ahulak. Ingurukoek ere esaten dizute zertan hobetu behar duzun. Horrela ikasten, hobetzen, joaten zara”. Aholkulari fina du Lasak ondoan: Jonhatan Torralbo, 2006an Munduko Txapeldunorde titulua lortu zuen andoaindarra. “Berak ikasitako guztia erakutsi dit niri”. Enekok teknikoki aurrerapauso handia egin du azken urte honetan. Lortutako emaitzak dira horren frogagarri.

INOIZKO UDARARIK ONENA

Egindako denboraldiarekin zoratzen dago alegiarra. Uda-

ra hasieran Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen lehenik eta Euskadiko Txapeldun geratu zen gero. Erkidegoko txapelketan txartela lortu ondoren, aurtan bigarren aldiz jokatu du Espainiako Txapelketa. Zazpigarren postuan sailkatu zen alegiarra. Txapelketa berean hogeita hirugarren egin zuen iaz. “Zazpigarren postutik 23. postura salto handia dago. Hor demostratu dut urte honetan asko hobetu dudala”, dio umil. Alegiarrak ez zuen espero hain postu ona erdietsiko zuenik, urtetik urtera maila handiagoa baitago. Lehenengo sei sailkatuek lortzen zuten Munduko Txapel-

KO TXAPELKETAN TXAPELA JANTZI NAHI DU



ketara joateko txartela. Horietako bat izan zen Eneko. “Aurten, goi mailako txapelketa eta Espainiakoa biak batera jarri dituzte. Espainiakoa egiten zenuen postuarekin goi mailako sailkapena hobetu edo okertu egin zitekeen. Nik zazpigarren egin nuen Espainiakoa, baina goi mailan oso ondo aritu nintzen eta bigarren postua lortu nuen”. Horrela, datorren urtean Txekian jokatu den Munduko Txapelketako txartela poltsikoan du Lasak.

MUNDUKO TXAPELDUNORDEA

Txekiakoa, alegiarraren biga-


rren Munduko Txapelketa izango da. Abuztu amaieran Portugalgo Penacovan jokatu zen mundialean egon zen Lasak. Inondik inora espero ez zuen lorpena erdietsi zuen: “Ez nuen horrelako denboraldia egiterik espero. Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratzea jada nahikoa izan zen niretzat. Gero zer eta datorren urteko Munduko Txapelketarako txartela lortu nuen. Hala ere, gutxien espero nuena aurtengo Munduko Txapelketan bigarren egitea

zen”, dio pozik. Bigarren sailaktu bazen ere, txapeldunarekin puntutara berdinduta geratu zen Eneko. “Puntuazio bera lortu genuen baina txapeldunak nik baino amuarrain gehiago bildu zituen”. Zazpi egun iraun zituen Munduko Txapelketak. Horietatik hiru pasa zituzten uretan lehiatzen. “Lehenengo egunean seigarren amaitu nuen, bigarrengoa hirugarren posturaino igo nintzen eta hirugarren egunean lortu nuen bigarrena izatea”. Txapelketaren ingurukoak kontatzean begiak argitzen zaizkio alegiar gazteari. Umil hitz egin du.

JADA TXEKIARA BEGIRA

Aurtengo denboraldia amaitu da Enekoentzat. Dagoeneko ordea datorren denboraldiari begira jarrita dago. Ondo prestatuta nahi du, ilusio handiak baititu denboraldi berrirako: “Munduko Txapeldun izatea beti buruan

dudan ilusio bat da. Espainiakoa titulua edukitzea ere gustatuko litzaidake. Bi titulu horiek falta zaizkit”. Helburu horietara iristeko irrikak ematen dio Enekoari entrenatzeko indarra. Esaten den bezala, gustuko lekuan aldaparik ez, eta Lasak oso gustuko du uretan ibiltzea. “Batzenzat arrantza aspergarria da, niretzat ez ordea. Niri lasaitu egiten nau: Uretan nagoenean eskola eta gainontzeko kezka guztiak ahazten zaizkit. Amuarrainak amua irensten ote duen. Soilik hori izaten dut buruan”. Enekoari ez zaio axola lagunak jolasean daudden bitartean entrenatzen aritu beharra. 14 urteko mutikoa izan arren, oso argi ditu gauzak: “Ondo uztartzen ditut eskola eta arrantza. Hori bai, eguna ondo antolatu beharra dago horretarako. Gaur arrantzan aritzeko tarterik ez badut, onartu eta kitto”, azaldu du ziurtasunez. Bere burua luzerako ikusten du arrantzan, edo behintzat, hala gustatuko litzaiokela zehaztu du. Noraino iritsi nahi lukeen galdetu eta “munduko txapeldun izateraino”, errepikatu du beste behin. Elkarrikeria amaitu eta uretan geratu da Eneko Lasak. ■



TOLOSALDEA >>> PLANAREN BAITAN EKIMEN EZBERDINAK EGINGO DIRA ABENDURA BITARTEAN

Inmigrazio plana gauzatzeko bidean pauso berriak

Tolosaldeko I. Inmigrazio Plana (2007-2009) gauzatzeko bidean urrats garrantzitsuak emango dira hemendik abendura bitartean. Hiru eremutan egingo dute lan: formazioan, sentsibilizazioan eta informazioan. Honekin batera *ongi etorri* plana ere martxan jarriko da. Tolosaldea Garatzen agentziako inmigrazio teknikariak, Goizeder Urbietak eman dizkio Galtzaundiri xehetasun guztiak.



Erredakzioa

Elkar Ezagutzen, Tolosaldeko I. Imigrazio Plana, 2007-2009 arteko epean gauzatzeko diseinatu zen, 2006an Tolosako Udalak egindako diagnosi batetik abiatuta. Eskualdera etorri berriak direnen beharrak asetu eta hauen integrazioa bultzatzeko helburuarekin, hainbat ekimen gauzatu dira dagoeneko: Tolosaldeko baliabideen gida eta bederatzi hizkuntza biltzen dituen hiztegitxo esaterako. Diseinatutako plangintzaren filosofiari jarraituz, hemedik abendura beste hainbat ekimen burutuko dira.

Zenbait lan egin badira ere, plana osorik gauzatzeko bidean gauza asko geratzen da egiteko. Goizeder Urbietak teknikariak politikoen konpromiso falta salatu du: "Inmigrazio plana Tolosaldea Garatzen osatzen duten udaletxe guztiek sinatu zuten. Bertan zehaztutako egitasmoak buru-

tzeko garaian ordea, politikoen konpromiso falta nabarmena da. Konpromisoa dirutik dator eta dirurik ezean ezin dira egitasmoak gauzatu", adierazi du.

Hiru ildo ezberdinetan egingo da lan hiru hilabete hauetan: formazioan, sentsibilizazioan eta informazioaren zabalakundean.

FORMAZIOA

Egun gauza normala da ikasgelan ikaskide etorkinak izatea. Irakalseek ordea ez dakite egoera hori kudeatzen. Horregatik, adin txiki-koen lan mahaietan planteatu zen irakasleentzako formazioa eskaintzea. "MENASen bidez, irakasleentzako ikastaro bat antolatuko dugu urrian. Adin txikiko etorkinekin ikasgelan izan beharreko jarreraz izango da". Informazio guzti hau ikasgelatik atera eta kalera zabaltzeko, urtarrilean erakusketa bat zabalduko dute SOS Arrazakeriarekin elkarlanean. Honekin batera, beste ikastaro bat

ere antolatu dute hiruhileko honetarako. "Dibertsitateari buruzko ikastaroa izango da. Gizartean dagoen dibertsitatea kudeatzeko tresnak eman nahi dira honen bidez". Teknikari eta profesionalei zuzenduta egingo da.

SENSIBILIZAZIOA

Alor honetan ekimen interesgarriak iragarri ditu inmigratio teknikariak. Azaroan literatura lehiaketa bat egingo da. Ez da ohiko lehiaketa izango ordea. "Soilik emakumeek hartu ahal izango dute parte. Lehiaketa honen helburua, etorkinaren beste aurpegi bat erakustea izango da". Izan ere, Goizederren hitzetan, gizartean etorkinak duen aurpegia, lanera datorren gizonezkoarena da. "Bi maila izango ditu lehiaketak: 16 urtetik gorakoentzat eta txikiagoentzat". Laister aterako da lehiaketa-ren deialdia.

Literatura ez ezik, zinearen bidez ere sentsibilizatu nahi dute gizartea. Tarteka inmigratioaren fenomenoaren lantzen

duten pelikulak eskainiko dituzte.

INFORMAZIOA

Etorkinentzat alor garrantzitsua da lan mundua. Horregatik, eskualdeko garapen agentziako inmigratio sailak erregularizazioari buruzko gida bat kaleratuko du abenduan. "Atzerritarrak kontratatzen dituztenak enpresari txikiak izaten dira normalean. Hauetariko askok ordea ez dute behar adina informazio edukitzen. Gida honekin, informazio hori erraztu nahi diegu", dio Urbietak.

Aipatutako ekimen guztiekin batera, hiruhileko honetan *ongi etorri* plana ere martxan jarriko da. "Egitasmo honen bidez, lehenengo aldiz Tolosaldera etortzen denari harre- ra egin nahi zaio, baina kalean". Kale hezitzaileek, liburutegia, anbulategia, haurtzaindegia eta azken batean herria bera erakutsiko die etorkinei. Urte amaierarako martxan egingo dela ziurtatu dute Tolosaldea Garatzen-en. ■

Masaiaren dimentsio psikologikoak: kontaktua



UKIMENA ZENTZUMEN ZABALA DA, PERTSONAREN GARAPENA AHALBIDERATZERAINO

Irigo Jimenez

Haurrak ingurunearekin duen kontaktuaren bidez eraikitzen du bere izaera. Sentsazioen mundua esnatzeko ahaleginak etengabeak dira haurrengan. Gorputzaren kontaktua, ukimena alegia, oso garrantzitsua da haur jaio berrientzat, oinarrizkoa baita hauen garapen psikologiko, emozional eta fisikoarentzat. Ukimenak "ni" eta "ingurua" -ren arteko mugak definitzen laguntzen du. Horretarako, kontaktua orain eta hemen gertatu behar du. Honek, aldi berean, batasun sentsazioa, babesa ematen du. Besteak eta bere burua ezagutzeko bidea ematen du. Ukimena zentzumen zabala da oso, pertsonaren garapena ahalbidetzeraino.

Ukimena da kontaktua. Hautzarotik ukitzea erreprimetuta egon den ekintza izan da. Baina izatez, gure garapenerako beharrezkoa da. Azala, birikekin batera kontakturako dugun organorik garrantzitsuena da.

Ziurtatuta dago, estresa gainditu eta erlaxatzeko modurik eraginko-

"Kontaktuak bizi-energia bat sortzen du gorputzean eta burbuinean. Norbere buruarekin konfiantza izaten laguntzen du eta baita besteekin erlazionatzen ere"

rena azala eta azalaren arteko kontaktua dela. Horregatik dira masaiak hain erlaxagarriak, eta terapeutikoki begiratuta, hain onuragarriak fisiko eta psikologikoki. Masaiak, azaletik burbuinera doan prozesuan sartzen da, eta ez alderantziz. Kontaktuak bizi-energia bat sortzen du gorputzean eta burbuinean. Norbere buruarekin konfiantza izaten laguntzen du eta baita besteekin erlazionatzen ere.

Masaiak hartzen ari garen bitartean, kontaktuak, ukitzen ari zaigunarekin bat egiteko beldurra sor dezake. Mugen galerak, autono-

miaren eta kontrolaren galera esan nahi du. Horrela, dependentzia beharra sor daiteke edo eta energia erotikoa. Kasu batzuetan, iraganean sortutako zauri fisiko eta psikikoekin lotutako sentimenduak berpizten dira. Antzietatea eta beldurra ekiditeko, gerta liteke ukimenetik sortzen den energiaren aurkako defentsa eraikitzea. Bestearekiko komunikazio hesi adina disfunczio izan ditzake ukimenak. Horregatik, ukimena norberaren ezagutzarako tresna paregabea ere bada.

Masaiaren bihotza isiltasunean esperientzatzen da. Kontaktuak esan ezin dena komunikatzen du. Hitzek zentzumenen esperientzia eteten dute. Masaiaren emozio eta sentimendu ugari bizitu daitezke: tirstura, plazerra, erotismoa, erlaxazioa... Ez da komeni esperientzia hauek eragitea ezta ekiditea ere. Gertatzen dena onartu behar da, esperientzia den bezala hartu behar da. Eramaten uztea da kontua, gerta dadin uztea. Isiltasunean emandako masaiak, mesede egiten dio esperientziaren sakontasunari. ■

Beti Añi
jatetxea



Garaian garaiko janariak eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920
Erremontari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Irigo Jimenez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Gazte eta helduak	Dependentzia eta
Dolu-terapia	menpekotasun
Psikoterapia-prozesua	terapiak: tabakismoa
astearte eta ostegunetan, 15:00 - 21:00	

ZABALA DESGUAZEAK

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04



Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347



Mahala

Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

BERTSOLARITZA >>> URRIAN HASIKO DIRA ESKOLAK EMATEN TOLOSAKO BERTSO ESKOLAN

Tolosako bertso eskola, etenaldiare

Tolosako bertso eskola ez da itxi, "punto muerton" egon da Bertsozale Elkarteko kide den Bixente Gorostidiren esanetan. Ikasturte honetan ordea lehenengo martxa sartu eta urtetako etenaldiaren ostean berriro ere martxan jarri da. Hilabete honetan hasiko dira eskolak ematen.

Erredakzioa

Azken urteetan saiakera asko egin dituzte Bertsozale Elkartek eta Tolosako Udalak Tolosako bertso eskola berriro ere martxan jartzeko. "Udalak taldetxo bat sortzeko baldintza jartzen zuen. Saiakerak egin ditugu azkeneko urteetan. Taldetxo batekin hasten ginen baina ez genuen lortzen ikasleek ekainera arte irautea", azaldu du Bixente Gorostidik. Aurten, maiatzean hasi ziren talde hori lortzeko ahaleginetan. "Maiatzean 60 ikasle aurrematrikulatu ziren. Azkenean, irailean, 20 izan dira matrikulatu direnak". Nahikoa bertso eskola berriro martxan jartzeko. Tolosako Kultur Etxean emango dituzte eskolak. Oraindik erabat zehazturik ez badago ere, ziurrenik bi talde osatuko dira ikasle gazteenekin.



Ibon Karrera, Alfonso Jimenez eta Bixente Gorostidi Tolosako Bertso Eskolan aritzen zireneko argazkia.

Helduen taldea ere osatzeko bidean da. "Jazko urrian talde batek bertsozalaritza lantzeko interesa azaldu zigun. Bonbereneako talde batek eta Tolosako beste elkarte batek ere eskaera bera egin digu". Oraindik eskolak emateko leku fisikoa eta egutegia zehaztu gabe badituzte ere, ia ziurra da helduen taldetxo bat bertsoa lantzen hasiko dela.

TOLOSAN ZERGATIK EZ?

Azken urteetan Tolosaldean bertso eskolak perritxikoak bezala ugaltzen dira eskualdean: Ibarren iaz helduen talde bat osatu zuten. Aurten jarraitu egingo dute eta horretaz gain, haurren bertso eskola

ere martxan jarriko da. Berasategin ere helduen eta umeen taldeak osatuta daude. Amezketan iaz hasi zen Fernando Amezketarra bertso eskola helduen talde batekin eta umeen taldea osatzeko ahaleginetan ari dira. Lizartzan txikienekin ari dira bertsoa lantzen. Alegian bi bertso eskola daude: Zazpi Astoren Gainean eta ikastetxe mailakoa. Azkenik, Anoetan Ikastolak antolatzen duen bertso eskolak jarraipena izango du aurten. Eskualde mailan bertso eskolek horrelako arrakasta edukita, zergatik Tolosan ez? Gorostidiren hitzetan, "gazteak itota daude eskolaz kanpoko jarduerekin". Horretaz gain,

hezkuntza arautuan hiru urtez jarraian lantzen dute bertsozalaritza, eta ikasle askok, horrekin asetuta sentitzen dute bertsoarekiko beharra.

Hezkuntza araututik bertso eskolarako saltoa handi egiten zaie ikasleei. Arestian aipatu dira zenbait arrazoi. Baina bada faktore bat, Bixenteren us-tetan gainontzeko guztiak gainditzen dituen. "Tolosan ez da bertso eskolarako joerarik egon. Urretxun, Zumarragan, Ordizian eta beste hainbat herritan, bertso eskolen 25. urteurrenak ospatzen ari dira. Denek dute senitartekoren bat edo lagunen bat bertso eskolan", azaldu du. Tolosako bertso eskola 2001. urte-

Tolosa Bit
Informatika Zerbitzuak

Ordenagailuak eta konponketak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

en ostean berriro martxan

an ospatu zen Euskal Herriko Txapelketatik hona geldirik egon da. Gaur egungo gazteek ez dute Tolosako bertso eskola martxan ezagutu. “Erreferente hori falta dute”, dio Bixentek. Hain zuzen ere hori da orain lortu nahi dutena: Talde bat finkatu eta Tolosako bertso eskolari jarraipena eman, ikasleei bertarako bidea erraztuz.

GELDIRIK BAINA EZ ITXIRIK

“Tolosako bertso eskola inoiz ez da itxi”, argitu nahi izan du Bertsozale elkarteko kideak. Tarteka elkartzen dira oraindik bertsolariak. Azkeneko aldiz, iaz jokatu zen Gipuz-

koako Txapelketaren harira bildu ziren.

Gaur egun bertsolaritza munduan ospetsuak diren hainbat pertsonen lehenengo pausoak Tolosako bertso eskolan eman zituzten. “Felix Irazustabarrena, Jexux Murua eta Jokin Sorozabal hasi ziren beste batzuen artean”. Hauek utzi ostean eten txiki bat gertatu zen, Jexux Mari Irazuren belaunaldia iritsi zen arte. “Bakoitzak bere martxa hartzen du eta jendea bertso eskolatik urruntzen hasten da. Irazu bera ere bakarrik geratu zen eta Hernaniko bertso eskolara joan zen orduan”, azaldu du amezketarrak. Urte batzuk geldirik egon ostean,

Ibon Karrera, Xabier Nazabal, Alfonso Jimenez eta Bixente bera hasi ziren. “Urte batzuk eman genituen elkartzen. Bakoitzak bere ahaleginak egin zituen bertsoa lantzen. Lehenik Karrerak eta Nazabalek utzi zuten eta Alfonso eta ni bakarrik geratuginen, tarteka Diego Riaño leitzarra eta Ekaitz Goikoe-txea beasaindarra etortzen zirelarik”. 2001ean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan hartu zuten parte eta ordutik ez du jarraipenik eduki.

Bixente Gorostidi, Tolosako hiru ikastetxeetan aritzen da bertsolaritza eskolak ematen. Gazteak animatze aldera, hezkuntza arautua eta bertso

eskolaren artean ezberdintasun handia dagoela dio amezketarrak. “Hezkuntza arautuan bertsolaritza derrigorrezka da eta badira ikasleak bertsoa betere gustatzen ez zaiona. Horrela oso zaila da bertsoa lantzeko giroa sortzea. Gainera, ikaslea ezin da bapatean aritzeko moduan prestatu”. Bertso eskolan ostera, taldeak txikiak dira eta ikasle guztiek euren borondatez ematen dute izena.

Tolosako bertso eskolan izena eman nahi duenak, Bixenterengana jo besterik ez du egin behar. Bereziki DBHko ikasleak animatu nahi ditu gorostidik. “Gutxienez proba dezatela”. ■

GALTZAUNDIREN KULTUR EKITALDIAK



Euskarazko komikien erakusketa

Urriak 13tik 24ra
17:00etatik 20:00etara
Ibarrako kultur etxean

Urriak 16an arratsaldeko 18:30etan
Joseba Antxustegietxarte han izango da



Urriak 19

NAFARROA OINEZ-IRUÑA
9:00etan autobusa
tren geltokian

Urriak 24

KULTUR ERROTA
TOLOSA (BEDAIO)
Jon Urrazaren bakarriketa
“Bob?? Nor da Bob??”

Idoia Santxex
ipuin kontalaria

Urriak 9

LEABURU. 17:00, Liburutegian
GAZTELU. 18:30, Eskolan

Urriak 16

IRURA. 17:30, Liburutegian
HERNIALDE. 18:30, Liburutegian

Urriak 23

IKAZTEGIETA. 17:00, Liburutegian
BALIARRAIN. 18:30,

IBARRA GALTZA KOMIK

KOMIKI LEHIAKETA
2008

SARIAK

Sariak 18 urtetik behera:
Lehenengoa: 400,00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.
Bigarrena: 200,00 euro

Sariak 18 urtetik gora:
Lehenengoa: 600,00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.
Bigarrena: 400,00 euro

NON ETA NOIZ AURKEZTU LANAK

Lanak Galtzaundiko egoitzan aurkeztu ahal izango dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira:

Galtzaundi Euskara Taldea
Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa
Nafarroa Etorbidea 6, behea
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko epea 2008ko irailaren 26tik azaroaren 26ra izango da. Sari banaketa abenduaren 12an izango da 19:30etan Ibarako Kultur Etxean.

Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago lortzeko (oinarriak, modalitatea eta hizkuntza, epaimahaia, nola aurkeztu...) deitu 943 655 004 telefono zenbakira, idatzi kultura@galtzaundi.com edo sartu www.galtzaundi.com web gunean.



Ibarako
Udala



galtzaundi
euskara taldea



Denboraldi berria, erronka berriak

LAN ONA EGITEAZ GAIN BALOIAREKIN GOZATZEA DUTE HELBURU TOLOSALDEKO FUTBOL TALDEEK.

Amaia Goikoetxea

Tolosaldean bada-go futbolarekiko zaletasuna; ezin ukatu. Horren adierazle dira Tolosaldean dauden futbol talde ugariak. Horien artean daude Tolosa, Amaro, Intxurre, Laskorain eta Lauburu taldeak eta Galtzaundi haiekin aritu da aurreko eta datorren denboraldiaren ingurukoak jasoz.

Baloiarekiko begikotasuna ez da mutilek soilik izaten duten grina, jarraitzaile gehien dituen euren futbola bada ere. Bestela galde diezaiela Tolosaldean dauden nesken taldeei. Tolosa CFn talde berria osatu dute

Oporretatik itzultzeak bi aurpegi izaten ditu askorentzat: batetik, lanean edo ikasten hasteko nagikeria eta bestetik, futbolaz berriro gozatzeko irrika. Batzuei bi aurpegi horien muga lausotu egiten zaie, futbol denboraldian gogor lan egin beharko baitute Tolosaldeko taldeek, noski, beti ere kirola egiten gozatuz

aurten kadeteen mailan; kolpetik 15 bat bildu dira eta horrek bermea ematen die hurrengo denboraldietarako: "helduen mailan jendea behar badugu, beheko mailatik jendea har dezakegu, eta gainera, hurrengo urteetan ere jarraipen bat izango dela pentsatzen dugu", dio Mikel Urbizu, Tolosa taldeko neska jubenil eta seniorren entrenatzaileak. Izan

ere, zailtasunak izaten dituzte taldea osatzerako garaian: "iaz taldean eskarmentu gehien zuten 3-4 jokalaritan ziren eta 10 bat geratu ginen. Orain jende berria etorri da, eta badirudi osatu garela".

Jubenil eta seniorrek batera entrenatzen dute Mikelekin. Iaz hasi zen taldearekin entrenatzen eta gustora agertu da aurreko urtean

taldeak egindako lanarekin: "emaitza aldetik ondo ibili ginen. Igotzeko fasea jokatu genuen; hor ibili ginen borrokan baina azkenean hirugarren postuan amaitu genuen. Bestetik, lagunarte ona dago taldean. Pena bakarra jendeak nesken futbola gutxi jarraitzen duela da".

Aurten ere sailkapeneko lehen postuetan egoteko ilusioz daude, eta bide horretan zuten eman zuten lehen pausoa, denboraldia irabaziz hasi baitzuten.

Dena den, badirudi neskek areto futboleko jokatzeko joera handiagoa dutela zelai handian baino: Intxu-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

rreren eta Laskorainen, adibidez. Intxurren, dena den, seniorren talderik ezin izan dute osatu aurten: “jendea heldu samarra zen, batzuk aspertu eta utzi egin zuten, beste batzuk Tolosara joan

ziren, eta ez zegoen gazterik taldeari jarraipena emateko”, dio Intxurreko Patxi Renobalesek.

Talde hori desagertuta, erregionaleko 2.mailan, jubeniletan, kadete mailan eta eskolarretan infantil mailako mutiko eta neskatuetan

dituzte jokalaria Intxurren.

EMAITZA KASKARRAK GOIKO MAILAN

Erregionalean 1.mailan zuten taldea iaz, baina jaitsi eta bigarrean jokatu beharko dute aurten. Jubenil, kadete eta infantil mailan, aldiz, oso ondo ibili ziren: “maila infantilean ez genuen igotzeko asmorik. Kopa jokatu genuen, kade-tetan ere bai... Gipuzkoako finalerdietan kanporatu ziren infantilak; areto futboleko neskek ere Gipuzkoako finalerdietarainokoa egin zuten”, dio Patxik.

Aurten erregional mailan mailaz igotzea izango dute xede, baina Patxik aitortzen du ez dela lan erraza izango. Dena den, lorpenak baino haratago, Intxurren filosofia “gazteei kirola egiteko aukera ematea” da. Hari horretatik, hurbiltzen den edonorentzako zabalik ditu ateak Intxurrek. Herrikoe-kin soilik ez dute taldea osatzen eta alegiarrez gain, Tolosa, Ibarra, Anoeta eta Legorretatik etortzen zaizkie jokalaria. Etorkinak ere badituzte taldean: “erregionalean bi errumaniar eta bi ekuatoriar, eta jubeniletan ere badira... guztira 7-8 izango ditugu”, dio Intxurreko arduradunak.

Denboraldi berriaren hasierari dagokionez, era guztietako emaitzak izan zituzten lehen jardunaldian: erregionaleko 2.mailako taldearen partidua bertan behera geratu zen, epailea azaldu ez zelako; jubenilek 1-3 galdu zuten; eta kadeteak 7-0 emaitzarekin gailendu ziren.

Intxurreko erregionalen antzera, Tolosako mutilak ere mailaz jaitsi ziren iaz. Denboraldi amaieran iritsi zen egungo entrenatzailea,

Jose Manuel Luluaga. Bere asmoa epe motzerako helburuak lortzea izango da, astez asteko lanari arreta jartzea. “Bestelako helburruren bat hurbil denean, ikusiko dugu, baina lehenik jokalariei lasaitasuna ematea da asmoa. Talde ona dugu, giroa ere bai, eta hortik nik uste gauza onak aterako direla”, dio Luluagak.

Aldaketak izan dira taldean iaztik: “jende garrantzitsua joan zaigu: Iban Agirrezabala, Orue, Endika,...”. Bestalde, talde bertako jokalariekin osatzeari garrantzia eman dio Luluagak: “nik uste garrantzitsua dela taldea osatzerakoan bertako jendea aintzat hartzea. Hemen urte mordo daramatzen gazteari eman behar zaio goiko mailan jokatzeo aukera. Kanpoko norbait etortzen bada, izan dadila nabarmentzeko, diferentzia bat markatzeko, bestela hemengoekin”.

Denboraldia hasi aurretik egin zuen hitzordua Galtzaundik Tolosako entrenatzailearekin. Denboraldi gogorra izango dela aitortu zuen, jaitsi berria den taldea izanik, gainontzeko taldeak gainean izango dituztela susmatzen baitute. Dena den, 13an hasi zuten denboraldia eta 0-3 irabazi zuten Tolosako mutilek. Epe motzeko helburuekin jarraitu beharko dute, beraz, ondo doakie-eta.

AMAROS: ERREGIONALAK HOBETO, JUBENILAK OKERRAGO

Iñigo Mendia eta Joxe Amubieta Amaroako entrenatzaileak taldearekin lanean harrapatu ditu Galtzaundik. Lehena jubenilekin aritzen da, eta bigarre-na erregional mailakoekin, Aitor Lasarekin batera.



Ibarrako Lauburu areto futbol taldea.



Amarozko jubenilen taldea.



Tolosa CF futbol taldea.

“Tolosaldeko futbol taldeek erronka berrirei aurre egin nahi die, beti ere, baloia-ekin gozatuz”.

Erregionaleko 2. mailan dabilen taldea txukun aritu zen: “igoerako postuetan sartzea lortu zuten. Azkenean 5. postuan amaitu zuten baina lan ona bete zuten. Jubenilek, ordea, hasiera batean emaitza onak lortu zituzten baina taldeak pixkanaka behera egin zuten, kopan geratu, eta ez genuen partidu ona egin”, azaldu du Iñigo Mendiak.

Aurreko denboraldiko emaitzak kontuan hartuta, erregional mailako taldea goiko postuetan egotea izango da helburua aurten, igoerako norgehiagokan sartu eta ahal bada igo; dena den, horretarako badakite lesio eza, edo ahalik eta gutxiena, izan behar dutela lagun. Jubenilei dagokionez, aurreko urtean emandako itxura hobetzea izango dute jomuga, eta noski, ahalik eta denboraldi onena egiten saiatzea.

Emaitza onak beti lagunetzen duten arren, Alegiko Intxurre taldearen antzera, lorpenen gainera kirola egiteko aukera emateari lehenetasuna ematen dio Amaroze: “talde bat dago hemen eta talde horrek futbolearen aritzeko aukera izan dezan nahi dugu. Giro ona sortzen da jokalarien artean”, dio Amubietak.

Erregional zein jubentzetan aldaketak izan dira Amarozen: “erregionalen 5 joan eta beste 5 etorri dira, eta jubentzetan ere Tolosatik eta areto futboleko batzuk etorri dira”.

Gustora egoteko moduko emaitzak lortu zituzten bi

taldeek lehen jardunaldian: biek irabazi zuten.

ARETO FUTBOLA: LAUBURU ETA LASKORAIN

Belabietan entrenatzen dute Ibarrako Lauburu taldekoek iluntze aldera. Hantxe topatu du Galtzaundik Txubel entrenatzailea bere mutilekin.

Aurreko denboraldian behetik hasi, gora egin eta behera egin zuten berriz: “nahiko eskas hasi ginen, taldean esperientzia gehien zutenak falta zitzaizkigun aurreko denboraldiko txartel gorriak zirela-eta. Gero, erdialdetik aurrera ondo, eta azkeneko bospasei partiduak berriz ere erdipurdi. 5. postuan geratu ginen”, azaldu du Txubelek.

Aurtengo denboraldia zaila izango dela aitortu du: “maila asko igo da. Goiko mailako taldeak jaitsi dira eta guk ez ditugu haiek izan ditzaketan fitxaketak; guk gazteak ditugu. Ikusiko dugu zer ematen duten, baina lehen 7-8 postuetan izango garela uste dut”, iragarri du entrenatzaileak.

Lehen jardunaldian goiko mailatik jaitsi berri den Zalatambor Perfiles Sintal taldearekin jokatu zuen Lauburuk, eta ohiko hiru jokalaririk gabe. Hala ere, berdinketa lortu zuen.

Taldean pare bat aldaketa izan dituzte: bi lagun joan zaizkie, eta beste bi gazte igo dituzte mailaz. Laskorainen ere antzerakoa gertatu da: “taldea gutxi gorabehera berbera da, aldaketaren bat edo beste egon den arren”, dio Jorge Alonso entrenatzaileak.

Tolosako neskekin aritzen den Mikel Urbizuren antzera, Jorge Alonsoren lehen denboraldia zen iazkoa entrenatzaile modura eta emaitza onak lortu zituzten:

“3. postuan geratu ginen eta inoiz baino puntu gehiago lortu”, azaldu du Jorgek.

Aurreko urteko emaitzei erreparatuta, aurten ahal den posturik gorena lortzen saiatuko dira: “Iaz lehena geratu zen taldea mailaz igo zen eta bigarrena

gure parekoa da; beraz, irabazten saiatuko gara, edo behintzat horregatik borrokatzen, ez dela gutxi”.

Borroka. Hori egin behar dute Tolosaldeko futbol taldeek denboraldi berrian, erronka berrirei aurre egiteko. Hori bai: beti ere baloiaekin gozatuz. ■



Tolosako nesken taldea.



Alegiako Intxurreko kadeteak.



Laskorain areto futbol taldea.

Urriaren 3tik 17ra arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Urriaren 9ra arte: Sükrü Karaküs ize-neko pintura erakusketa.

»» Azaroaren 8ra arte: Jose Luis Urdapilletaren argazki erakusketa.

HERNIALDEKO OSTATUA

»» Azaroaren 10era arte: Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz-en argazki erakusketa.

ANTZERKIA

LEIDOR

»» Urriak 10: El otro lado antzezlanaren Charo Lopezen taldeak eskainita, 20:30ean.

MUSIKA

SAN FRANTZISKO ELIZA

»» Urriak 4: Hodeiertz abesbatzaren zilarrezko ezteietako kontzertua 20:15etan.

LEIDOR

»» Urriak 11: Kolas Mago Harrigarria ize-neko opera haurrentzat 17:00etan.

»» Urriak 17: El Caserio zarzuela Tolosako Orfeoia antolatuta, 20:30ean.

BERTSO JAIALDIA

LEIDOR

»» Urriak 12: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi kantuan 17:30ean. Antolatzailea, Euskara Batzordea.

EUSKAL JAIA ANOETAN

LEIDOR

»» Urriaren 11n, Larunbata: 17:00: SEGA APUSTUA Argindegi baserriko zelaian. Iluntzean TXEKORRA ERRETZEA

»» Urriaren 12an, igandea: 09:45: JAIAREN AURKEZPENA, DANTZARIEKIN. Ondoren, TXISTULARI ETA LOATZO MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KALEJIRA.

10:00: Eskualdeko BASERRITAR ETA ARTISAUEN AZOKA, DULTZAINEROEKIN. IKASTOLAKO DBH4KO IKASLEEK PINTXO POSTUA jarriko dute.

12:00: HERRI KIROLAK umeentzat
14:00: HERRIBAZKARIA frontoian: TXEKOR JATEA

Bazkalostean, HERRI KANTAK, "KUKUAK" taldearekin

18:00: IÑAKITA INAXIO PERURENA HARRIJASOTZAILLEN SAIOA plazan Jarraian, TALOGILEAK ETA ERROMERIA "KUKUAK" taldearekin. Tartean LANDATARREK joko dute.

IRURAKO JUBILATUEN EGUNA

»» Urriak 12: Urriak 12: 12:00; Meza nagusia. 14:30; Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren jokuetak sariak banatzea eta musika dantzagarria zuzenean Joxe Javier Mendizabalekin.

UGARTEKO ERRO-SARIOKO AMAREN FESTAK

»» Urriak 3, ostirala:

- 8:30 ean kanpai jotze eta suziriak.
- 9:00 etan HERRI AFARIA bertsolariarekin: Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Nahikari Gabilondo.
- Ondoren trikitixa Saioa, Aitziber eta



KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 813



Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886 943 420 187	Garibai, 8 943 420 259 943 430 947	Rondilla, 11 943 670 615 943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.



Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



TINDATEGIA
KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



kutxa



ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

MOTZEAN

Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Nafarroa Oinezera joateko autobusak antolatuko ditu Galtzaundi euskara taldeak. Bazkide ez direnentzat 11euro izango da autobus gastua eta bazkide direnentzat berriz, 8eurotako. Autobusa, goizeko 9:00tan aterako da tren geltokiko aparkalekutik, itzulera berriz, arratsaldeko 19:00tan izango da. Galtzaundin izena emateko epea, urriaren 16an amaituko da.

Aurten Nafarroa oinez Iruñako Jaso Ikastolaren alde egingo da. Jaiari buruzko informazioa nahi duenak www.nafarroaoinez.net webgunean aurkituko du.



Letxurdiorekin.

• Atsedendian TOKA leihaketa.

»»» Urriak 4, larunbata:

- 11:00 etan gaztetxoek pelota partiduak.
- Zubeldia / Artola
- Amundarain-Zubeldia / Zabala-Artola
- Zabala-Otamendi / Beloki-Iribarren
- Umeentzat:
- PUZGARRIAK eta OHEELASTIKO-AK. 12:30etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:00etara.
- Arratsaldean zehar Zalduak ibiliko dira nahi duenak Ugarten zehar ibilalditxoak egiteko.
- Ondoren TXOKOLATEA
- Arratsaldeko 16:00 etan Ugarteko IX. MUSTXAPELKETA.
- 21:00 etan ZAHAGI-ARDOA.
- 22:30 ean Ansorregi eta Larrañagarekin trikitixa
- Atsedendian "Ikuskizun bitxia".

»»» Urriak 5, igandea:

- 11:30 ean Meza Nagusia.
- Jarraian TXAKOLIN PROBAKETA eta pintxoak plazan.
- Bazkal aurretik LAJA eta LANDAKAN-DARENren trikiti saioa.
- 18:00 etan harrijasotzaileak:
- . AIMAR IRIGOIEN
- . JOSEBA OSTOLAZA
- . JOSE RAMON IRURETAGOIANA, IZETA II
- . JUANJOSE UNANUE, GOENATXO
- Ondoren INGURUTXUA.
- 20:30ean SAGARDO PROBAKETA.
- Sagardo probaketaren bukarera Guraso Elkarteak zozketatutako txerriaren zenbaki saritua aterako da.
- LAJA eta LANDAKAN-DAREN trikitiarekin festei amaiera emango diegu.

Guardiako farmaziak

URRIA

- Larunbata, 4**
Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
- Igandea, 5**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Astelehena, 6**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Astearte, 7**
Echeveste (Gemikako arbola, 3) Tolosa
- Asteazkena, 8**
Olarreaga M. (Martin J. Iraola 10) Tolosa
- Osteguna, 9**
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Ostirala, 10**
Ugarte M.T. (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Larunbata, 11**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Igandea, 12**
Morant R. (Zabalaretta, 1) Tolosa
- Astelehena, 13**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Astearte, 14**
Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa
- Asteazkena, 15**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Osteguna, 16**
Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
- Ostirala, 17**
Echeveste (Gemikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketak-Abaltzisketa-Albiztur	
Osasun zentroa	943 653 212
Alto	
Medikua	943 654 737
Anoeta-Aikiza-Hernialde	
Medikua	943 652 339
Baliarrain	
Medikua	943 889 003 (asteazk.)
Berastegi-Elduain	
Medikua	943 683 361
Bidegoian	
Medikua	943 681 134
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	
Osasun etxea	943 672 411
Ikaztegieta	
Medikua	943 653 329
Irura	
Osasun zentroa	943 690 720
Tolosa	
Anbulatorioa, Iarmialdiak	943 650 931
San Esteban, hitzordua	943 006 800
Gemikako Arbola, hitzor	943 006 900
Amarozko dispensarioa	943 672 637
Asunzion klinika	943 675 799
(Iarmialdiak)	943 675 390
San Kosme San Damian	
geriatrikoa	943 672 932
Udalzaingoa	943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
lurreamendi egoitza	943 670 325
Iarmialdiak, Suhiltzaileak	112
DYA	943 672 536
Gurutze Gorria	943 674 888
	943 651 425
Ertzantza	943 673 022
Tolosa Gasa	943 675 320
Lizartza	
Medikua	943 682 077
Orendain	
Medikua	943 655 595
Orexa	
Medikua	943 682 228

ARTESANIA
ZUEN TZART
eskuz esku
arranta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

JARRI ZURE PUBLIZITATEA

943 655 004

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu-
-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527

ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Alegian. 65 m². 168.000 euro. 629 52 51 50.

Neska batek, estudio bat edo pisu konpartituan gela bat alokatu nahi du. 948468327.

Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko beste ikasleen bila dabil. 627834993.

Garaje bat alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

SALGAI

Setter Ingles arrazako txakur kumeak salgai Abaltzisketan. 697.92.99.99

Kotxe bat salgai BMW 330 D full equip 18.000 euro. 629 52 51 50.

IKASKETAK

Ingelesko klaseak ematen dira taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. 664 160 268.

HOROSKOPOA

URRIAREN 3TIK 17RA ARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Zure gustuko filmeak daude karteldegian. Aukera hau baliatu beharko zenuke. Bestalde hartu txanda podologoarenean. Hanka inoiz baino ahulago dituzu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Udazkena ez da batere ona izango zuretzat. Gaixo antzean ibiliko zara. Ondo babestuta atera kalera, hotzeriak ekiditeko.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Zain zaudenean denbora mantsoago igarotzen da. Kontu horretaz ahazten saiatu beharko zenuke, horrela ez zaitu esperoa hain luzea egingo.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Denok merezi dugu bigarren aukera bat. Zu eskuzabala zara horretan, baina berak ez daki alferrik galtzen ari den aukera hori bigarrena denik. Jakinaren gainean jarri beharko zenuke.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Ez zara egoki elikatzen. Orain ez dituzu horren ondorioak nabaritzen baina epe luzean elikadura oker horren ondorioak agertuko dira. Oraindik garaiz zaudete ordea.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Norberarengan konfiantza izatea ona da, baina horregatik ez diozu zeure burua prestatzeari utzi behar. Azterketa hau gainditzeak ate asko zabalduko dizkizu.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Abila zara apustuak galtzen. Hala ere zu tentatze hutsarekin ostera ere erori egiten zara. Zuhurragoa izaten ikasi behar duzu. Sasoi onak datoz.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Dena ondo doakizu, lanean, lagunartean, etxean dizdira berezia duzu. Hala ere ezin duzu zoriontsu izan ezkutatzen ari zaren kontu horrek kezkatzen baizaitu. Aska zazu behingoz!



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Alfertuta zabilta aspaldian. Beti lanak biharko uzten. Orain arte ondo atera zaizkizu gauzak baina horrela jarraitzen baduzu, arazo larriak izango dituzu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Ez zaitu mesedeak eskatzea gustatzen nahiz eta zu eskuzabala zaren besteiekin behar dutenean laguntzen. Oraingo honetan zure txanda da. Ez beldurrik izan eta eskatu laguntza.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Errutina berean denbora gehiegi daramazu. On egingo dizu aspaldian egon ez zaren jendearekin egotea, edo leku ezberdin batera joatea.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Nekatuta zaudete, egiten duzun lan eskergari ez diozu etekinik ikusten. Izan pazientzia, saria iritsiko da eta. Bitartean eutsi goiari!





**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazio egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz ballatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

17.600 euro*

4

AUTO
STOCK-EAN

BIZONA AIRE GIROTU AUTOMATIKOA

9 AIRBAG

VSC+TRC (EGONKORTASUN ETA TRAKZIO KONTROLA)

METALIZATUTAKO PINTURA



TOYOTA AVENSIS SEDAN 1.8 129CV SOL CV

14.350 euro**

3

AUTO
STOCK-EAN

AIRE EGOKITUA

9 AIRBAG

VSC+TRC (EGONKORTASUN ETA TRAKZIO KONTROLA)

CD IRRATIA/ MP 'B7-A'VWMA



TOYOTA AURIS 1.4 97 CV 3P.

21.200 euro***

2

AUTO
STOCK-EAN

BIZONA AIRE GIROTUA

EASYFLAT 7 ESERLEKU TOLESTUEN SISTEMA

EGONKORTASUN SISTEMA+ 9 AIRBAG

METALIZATUTAKO PINTURA



TOYOTA COROLLA VERSO DIESEL 136 CV LUNA



Aprobetxa itzazu Toyota Avensis, Auris edo Corolla Verso autoak prezio ezin hobean. Zure esku dituzu Toyota baten garantiak eta kalitatea.

Orain informazaitetz Toyotako zentru ofizialean eta PLAN VIVE MEJOR DE TOYOTA aukeraz baliatu zaitetz.

PLAN VIVE MEJOR 
DE TOYOTA



TODAY TOMORROW TOYOTA



Información y prueba:
902 342 902

EuskoAuto

Olaberría - Barrio Yurre, Polígono Karobi
Tel.: 943 80 59 26

*Toyota Auris: BEZ-a, garraioa eta matrikulazio zerga. Eskaintza baliozkoa hilabete buekaera bitartean Penintsulan eta Balear Irlak stock-erako. Ikusgai dauden autoak: Toyota Auris 1.490 CV LUNA PLUS 5. Jaukipena (g/km) 131tik 176ra). Kontsumo konbinatua (l/km) 5,0tik 7,1era).
**Toyota Avensis: BEZ-a, garraioa eta matrikulazio zerga. Eskaintza baliozkoa hilabete buekaera bitartean Penintsulan eta Balear Irlak stock-erako. Ikusgai dauden autoak: Avensis Wagon Sol. Jaukipena (g/km) 146tik 193ra). Kontsumo konbinatua (l/km) 5,5etik 9,2ra).
***Toyota Corolla Verso: BEZ-a, garraioa eta matrikulazio zerga. Eskaintza baliozkoa hilabete buekaera bitartean Penintsulan eta Balear Irlak stock-erako. Ikusgai dauden autoak: Toyota Corolla Verso Sol 136 CV. Jaukipena (g/km) 164tik 184ra). Kontsumo konbinatua (l/km) 5,2tik 7,1era).